

Indultua 'Marey kasuko' kondenatuentzat

ESPETXE ERAKUNDEEK HIRUGARREN GRADUA EMAN ZIETEN KONDENATUEI, INDULTUEN BERRI JAKIN BEZAIN LASTER

Gobernuak indultua eman ostean, Vera eta Barrionuevo gaur irtengo dira kalera

Ministroen Kontseiluak *Marey kasuko* hamar kondenaturi indultu partziala ematea erabaki zuen atzo. Ordu gutxiren buruan, bestalde, Espetxe Erakundeek kondenatuei hirugarren gradu mugatua ematea erabaki zuten. Atzo iragarri zuten, gaur bertan dira kalera irtetekoak Vera eta Barrionuevo, baimen bereziarekin.

Agentziak / Madril

GAUR goizeko lehen orduetan irtengo dira Jose Barrionuevo eta Rafael Vera Guadalajarako espetxetik, Gabonetarako baimen bereziarekin. Kartzelaratu zituztenetik hiru hilabete baino pasatu ez direnean, Espainiako Gobernuo Ministroen Kontseiluak bi horiei eta *Marey kasuko* beste zortzi kondenaturi indultu partziala ematea erabaki zuen atzo, eta, ordu gutxiren buruan, hirugarren gradu mugatua eman zieten Espetxe Erakundeek.

Josep Pique Espainiako Gobernuo bozeramaileak erabakia hartu ostean azaldu zuenez, «koherentziak bultzatuta» hartu du erabakia Gobernuak. Esan zuenez, betiko prozedura jarraitu da kasu hauekin, nahiz eta «kasua inguratzen duten hainbat elementu berezi» daudela onartu. Piquereren arabera, justiziaren eta Zuzenbide Estatuari behar zaion «errespetu osoarekin» hartutako erabakia izan da.

Bestalde, indultuen berri jakin eta berehala iragarritako hirugarren graduak esan nahi du kondenatuek urteko asteburu guztiak espetxetik kanpo egin ahal izango dituztela, eta urtean 48 eguneko baimenaz gozatu ahal izango dutela. Francisco Alvarez zen, atzo arratseko azken orduetan, espetxean zeuden sei kondenatuetatik hirugarren gradu lortu ez zuen bakarra. Izan ere, Alvarez Bartzelonako Cuatro Camins espetxean dago, eta, kasu horretan, Generalitateari dagokio hirugarren gradu ematea.



Josep Piquek eman zuen atzo *Marey kasuko* kondenatuei indultua emateko erabakiaren berri.

CAMPOS / EFE

Gogoratu egun hamabitik sei kondenatu baino ez zeudela espetxean: Jose Barrionuevo, Rafael Vera, Francisco Alvarez, Julian Sancristobal, Miguel Planchuelo eta Ricardo Garcia Danborenea. Izan ere, Luis Hens, Juan Ramon Corujo, Julio Hierro eta Francisco Saiz Oveja behin-behineko askatasunean daude, Auzitegi Konstituzionalak beraien errekursoak aztertzen dituen bitartean. Eta Michel

Dominguez eta Jose Amedo, berriz, kalean daude hirugarren graduarekin, *Marey* bahitzeagatik ezarri zitzaizen zigorra aurretik zituztenekin bateratu zitzaielako.

Hala, indultuak kondenatuetatik hamarri eman zaizkien arren, haietatik bostek baino ez dute hirugarren gradu jaso, gainontzekoak, Alvarez ezik, kalean baitzeuden, arrazoi ezberdinegatik. Gogoratu, sententzia ezagutarazi zutenetik, Barrionue-

vok, Verak eta gainontzeko kondenatuek hiru hilabete egin dituztela, gehienez, espetxean.

Espainiako Gobernu eta iragarritako indultuak • *Marey kasuko* kondenatuei indultu partziala emanez amaitu zuen Espainiako Gobernuo Ministroen Kontseiluak urteko jarduna. Hala, aurreikusitako zitekeenaren arabera, Ministroen Kontseiluak ontzat eman ditu Auzitegi Gorenak indultuen alde egiterakoan erabilitako argudioak, eta harek egindako proposamena bere egin

du, Segundo *Marey* bahitzeagatik kondenatutako hamabi lagunetatik hamarri indultua emanez.

Espainiako Gobernuo bozeramaile Josep Piquek atzo jakinarazi zuenez, «Margarita Mariscal de Gante Justizia ministroak, behin Gorenaren txosteneko oinarriko argudioak aztertu ondoren, indultuak ematea aholkatu zion Ministroen Kontseiluari, Gorenak berak ezarritako baldintzen arabera». Alegia, Mariscal de Gantek Espainiako Gobernuari aholkatu ziola hamar kondenatuentzako indultu partziala ematea. Piquereren arabera, «indultuekin jarraitutako prozedura Gobernuak beti jarraitzen duen bera izan da: Zuzenbide Estatuarekiko, botere judizialarekiko errespetuz jokatzea, eta, horren ondorioz, hartutako erabakia hartzea». Esan zuenez, «koherentziak bultzatu» du Gobernuak indultu partzialak ematera.

Kondenatuen zigorrak, beraz, bi herenetan jaitsi dira indultu partzialen ondorioz. Barrionuevo, Vera eta Sancristobal hamar urteko zigorra ezarri zuten Auzitegi Gorenak bere sententzian, eta indultuekin hiru urte eta lau hilabetera murrizten zaie; Planchuelo, Alvarez eta Garcia Danboreneari, berriz, bederatzi urte eta sei hilabetetik hiru urte eta bi hilabetera; Hierro eta Saiz Ocejari bost urte eta sei hilabetetik urtebete eta zortzi hilabetera; eta, azkenik, Hens eta Corujori bost urtetik urtebete eta sei hilabetera. Amedo eta Dominguez, baina, ez zaie indulturik eman, eta haien abokatuek euren haserre azaldu zuten atzo, hirugarren graduarekin egoteagatik ezin baita neurri hori baztertu. X

Ezohiko prozedura azkarra

AZKARTASUN handiz egin dira *Marey kasuko* kondenatuak indultatzeko prozedura guztiak. Uztailaren 29an eman zuen ezagutzera Auzitegi Gorenak sententzia, abuztuaren 12an egin zituzten Vera eta Barrionuevoren izenean lehen indultu eskariak, eta, indultuen gaineko erabakiek epe luzea eskatzen duten arren, atzo eman zuten Espainiako Gobernuak indultua.

Hainbatetan azaldu dute politikariek iritzi

hori, batzuk azalpen bat eman nahiez, eta beste batzuk azkartasun hori salatuz. Izan ere, preso gehienak indultuen zain urte luzez egoten diren bitartean, Verak eta Barrionuevok hiru hilabete baino ez dituzte egin espetxean.

Guztiak egin dute ahal bezain beste azkartzeko. Hala, Auzitegi Gorenak bere txostena egiteko behar zituen datu eta dokumentuak lortzeko premia azaldu zien

espetxeetako zuzendari-tzei. Bestetik, erabakia ezagutarazi eta lau egun baino ez zituen behar izan txostena Justizia Ministeriora bidaltzeko. Justizia Ministerioak, bere aldetik, egun bakarra behar izan zuen 3.500 orriko txosten batetik indultuak beharrezkoak zirela ondorioztatzeko eta Ministroen Kontseiluari bere erabakia igortzeko. Eta, azkenik, Ministroen Kontseiluak txostena irakurri gabe hartu zuen

erabakia. Izan ere, Josep Piquek atzo azaldu zuenez, Gorenaren erabakia errespetatuz eta Margarita Mariscal de Gante Justizia ministroaren aholkuz onartu zituzten indultu partzialaren eskaerak.

Azkenik, aipatu behar da Auzitegi Konstituzionaleko presidentek atzo iragarri zuela ahalginak egingo dituztela errekursoak urtarilean aztertzeko. Azkartasun handiz kasu honetan ere.

EUSKAL PRESO GUZTIAK EUSKAL HERRIRA!!!

GAUR, HILAK 24

ARRATSALDEKO 19:00etan

TRIANGULOAN

MANIFESTAZIO IXILA TOLOSAN

TOLOSARA PLATAFORMA
AMNISTIAREN ALDEKO KOMITEA
SENIDEAK
ELKARRI
EH

LAB
EHNE
JARRAI
EGIZAN